

## **Liburutegia egokitzeo eta indartzeko asmoa du Ormaiztegiko Udalak**

**Kultura ekintzei bultzada ematea eta irailean haur eskola irekitzea ere erronka nagusien artean daude.**

Estitxu Imaz

Ormaiztegiko Udalak liburutegian berrikuntzak egiteko asmoa dauka, eta horrez gain herritarrek liburutegia erabili dezaten bultzada bat eman nahi dio. Kultura eta Hezkuntzako zinegotzi Aitor Mazorriagak jakitera eman duenez helburu nagusi dira kultur ekitaldiak indartzea eta irailean haurtzaindegia irekitzea ere.

Mazorriagaren arabera legealdi honetan konturatu dira azken urte luzeetan apenas ez dela inbertsiorik egin liburutegian. Altzariak zaharkituta zeuden eta liburutegiaren erabilera ere aspaldian gainbehera zetorren. Egoerari aurre egiteko zenbait neurri hartzea erabaki dute Kultura Batzordean. Batetik, altzari berriak jarriko dituzte. Egungo beharrei egokitutako altzariak izango dira eta espazio edo gune desberdinak sortuko dituzte: haurrentzako gunea, ikasteko gunea eta ordenagailuekin jarduteko gunea. Bestetik liburuak, CDak eta DVDak erosteko aurrekontutik 5.000 euro bideeratuko dituzte.

Kultura batzordeburuak aipatu duenez altzariak momentu batetik bestera jarriko dituzte eta liburu berriak jada eskura dituzte.

Eusko Jaurlaritzak emandako diru laguntza bati esker bi ordenagailu erosi dituzte, bat barne lanetarako eta bestea jendearen erabilpenerako. Internet jarriko dute bietan. Liburutegia berrituta gure asmoa da haurrek haien txoko propioa edukitzea, taldeko lanak egiteko leku bat egotea eta azkenik kontsultak egiteko beste gune bat egotea. Horrela, jendeak liburutegia egun erabiltzen duena baino askoz gehiago erabiltzea lortu nahi dugu. Hau da, azken batean liburutegia biziberritzea.

Liburutegian egindako berrikuntza eta aldaketa guztiak herritarrei jakinarazteko asmoz etxez etxe orriak banatuko dituzte. San Andres eskolako ordezkariekin ere bildu nahi dute, eskolako haurrek tresna hau ezagutu eta erabil dezaten, dio Aitor Mazorriagak.